

Antxiñako fotografixia

Ziklo-krosa barriro Oñatin

Etenaldi oso luze baten ondoren, **aurten ziklo-krosa barriz** ikusteko aukeria izango dogu Oñatin. Berrogeita lau bat urte pasau bihar izan dira horretarako. Belaunaldi gaztiendako zihero barrixa izan leike halako ikuskizuna. Baiña sasue batian gure herrixa inguruko lekurik ezagunena ez ezik, Euskal Herriko guztiko famauena be bazan halako karrerak organizaitteko orduan. Gerraostian inddartu zan ziklo-krosa hemen. Urtero izan ziran era horretako pruebak 1947ttik 1953ra bittartian, urte-urte inportantia-guak: 1947xan eta 1948xan Espaiñako XII. eta XIII. Txapelketak ospatu ziran; 1949ttik 1952ra Naziñoarteko lau Kriterium antolatu zittuain, txirrindulari bikaiñekin; eta zazpigarrenian, 1953an, **Munduko IV. Txapelketa** ospetsua.

Gaurko fotografixiak mundu-txapelketa horren urteixeria erakusten dosku unibersidade aurretik. Hamar lurraldetako 43 korredorek hartu euen parte **1953ko martixaren 8** haretan, eta 10 erretirau ziran. Beste askotan letxe, frantsesak izan ziran jaun eta jabe: **Roger Rondeaux** aurreko bi urtetako txapeldunak irabazi eben Oñatin be; 2. **Gilbert Bauvin**-ek urten eben; 3. **André Dufrais**-ek; hirurak Frantziako selekziñokuak; 4. **Hans Bieri** suitzarrak; 5. **Joaquim Filbá** katalanak; eta lehenengo euskalduna **Julian Agirre-**

zabal durangarra izan zan, 7. postuan. Ezkerrian **Reyes Korkostegi** oñatiarra ikusi geinke, Txantxiku Txoko alkarteko antolatzaillerik nagusixenetakua.

Harrezkero, asko bajau zan txirrindularitzaia jeneralian Oñatin, eta ziklo-krosa gehixen bat. Txantxiku Txokok antolatutako karrerak gutxittuaz fan ziran eta Aloña Mendik ez eben errelebua hartu 1967ra arte. Tarte horretan **Luis Mari Etxe-**

berria eta bere kuadrillia saiatu ziran ziklismo-kontuetan. Ziklo-krosari dagokionez, San Martiñeko zirkuituan organizau zittuain prueba batzuk estaduko txirrindularixekin: 1965ian **Anton Barrutia** izan zan irabazle eta **J. Martínez** 1966xan. Geroztik, berrogei urte pasako tarte luzia etorri xakun, **abenduaren 18xan** amaittuko dana, San Martin inguruan orain-guan be.

J. E.



Fotografixia Bilbo-ko **Elorza** argazkilari-xak atara eben eta guk Udal Artxibuan esku-ratu dogu. Eskerrik asko!